| 1. ERANSKINA: KULTURA SAILA | ANEXO 1: ÁREA DE CULTURA |
|---|---|

| **1.1. KULTURA ENTITATEEI URTEKO EGITARAUAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.** | **1.1. BASES ESPECÍFICAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA REALIZACIÓN DE PROGRAMAS ANUALES PARA LAS DIFERENTES ENTIDADES CULTURALES.** |
|---|---|
| **1. Xedea** | **1. Objeto** |
| Deialdi honen xedea da 2008 urtean irabazi asmorik gabeko Arrasateko kultura elkarteei urteko programak finantzatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. | Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de concesión de subvenciones destinadas a financiar el desarrollo de programas anuales a asociaciones culturales de Arrasate sin ánimo de lucro durante el ejercicio de 2008. |
| **2. Onuradunak** | **2. Personas beneficiarias** |
| Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte deialdi honetan zehaztutako alorrean kultura ekintzak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteek, egoitza eta jarduteko esparrua Arrasaten dituztenak. | Podrán solicitar subvención aquellas entidades sin ánimo de lucro que desarrollen actividades culturales en el campo especificado en la presente convocatoria, que tengan su sede y ámbito de actuación en Arrasate. |
| Erregistro publikoan inskribaturik egoteko betebeharrari dagokionean, deialdi honen oinarri orokorren 4. artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte onuradunek. | Las personas beneficiarias deberán reunir las condiciones exigidas en el artículo 4 de las bases generales de la presente convocatoria en cuanto a la obligatoriedad de inscripción en el correspondiente registro público se refiere. |
| Deialdi honetatik kanpo geratuko dira: | Quedarán excluidos de la presente convocatoria: |
| a) Beren izaera eta helburuak Kultura sailaren ardurapekoak diren eremuekin lotura zuzenik ez dutenak. | a) Aquellas entidades cuyos objetos y naturaleza no tengan una relación directa con los ámbitos de competencia del área de Cultura |
| b) Bere izaera eta helburuagatik udalaren beste dirulaguntza programa batean sar daitezkeen proiektuak edo ekintzak | b) Aquellos proyectos o actividades que por su naturaleza y objeto puedan ser incluidos en otro programa de subvención del Ayuntamiento. |

| | |
|---|---|
| **3. Eskaerak izapidetzeko administrazio unitate eskuduna** | **3. Unidad administrativa encargada de la tramitación de las solicitudes** |
| Eskaerak Kulturaren administrazio unitateak izapidetuko ditu. | Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Cultura. |
| **4. Eskaerak baloratzeko irizpideak** | **4. Criterios de valoración de las solicitudes** |
| Dirulaguntza jasotzeko aukera izateko, irizpide eta baremo hauen araberako puntuaketa lortu beharko dute erakundeek: | Para acceder a la subvención, las entidades deberán obtener una puntuación conforme a los siguientes criterios y baremos: |
| a) Proposatutako egitarauaren ezaugarriak: Gehienez 40 puntu, alderdi hauek kontuan hartuta: | a) Características del programa propuesto: un máximo de 40 puntos, teniendo en cuenta los siguientes aspectos: |
| a.1.Garatzen den egitarauak kultura arloari egiten dion ekarpena. | a.1. Aportación que realiza el programa al ámbito cultura. |
| a.2. Garatuko den egitaraua herritar guztiei zuzentzea, giza proiekzioa, beste entitate, hiritar eta kultura eragile batzuen inplikazio maila. | a.2. Dirigirse el programa a desarrollar a toda/os la/os ciudadana/os, su proyección humana, nivel de implicación de otras entidades, ciudadana/os y agentes culturales. |
| a.3. Proposatutako egitarauaren ibilbidea eta errotzea. | a.3. Trayectoria y afianzamiento del programa propuesto. |
| b) Entitate eskatzailearen ezaugarriak gehienez 40 puntu, alderdi hauek kontuan hartuta: | b) Las características de la entidad solicitante como máximo 40 puntos, considerando los siguientes aspectos: |
| b.1. Entitate eskatzailearen jarraitasuna eta egonkortasuna. | b.1. Continuidad y estabilidad de la entidad solicitante. |
| b.2. Udalaren ekimenetan partehartzaile izatea | b.2. Ser participativo en las iniciativas del Ayuntamiento. |
| b.3. Entitate eskatzailearen eta bere giza taldeen dedikazioa. | b.3. Dedicación de la entidad solicitante y su equipo humano. |
| b.4. Euskararen sustapenaren aldeko jarrera | b.4. Actitud favorable de fomento del uso del euskera. |
| c) Entitatearen finantza baliabideak; bere baliabideen, beste dirulaguntzen eta aurkeztutako gastuen aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna. Gehienez 20 puntu. | c) Recursos financieros de la entidad; proporcionalidad entre sus recursos, otras subvenciones y el presupuesto de gastos presentado. Máximo 20 puntos. |

| | |
|---|---|
| Edozein kasutan, programa honetan jasotako dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte eskatzaileek. | En todo caso, los solicitantes deberán obtener un mínimo de 50 puntos para poder conseguir las subvenciones recogidas en el presente programa. |
| **5. Aurrekontua** | **5. Presupuesto** |
| Programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru kopurua 40.000 €koa da eta finantzatuko da "1.02.00.480.451.00.00-Kulturako dirulaguntzak kontu sailaren kontura. | El importe económico asignado para las subvenciones objeto del presente programa asciende a la cantidad de 40.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.02.00.480.451.00.00-Subvenciones de Cultura". |
| Aipatu kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurrikusten dutenaren arabera. | Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución del Presupuesto Municipal. |
| **6. Klausula gehigarria** | **6. Cláusula adicional** |
| Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria. | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria. |
| Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio. | Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |